

TXIN PART 63





Aurkibidea

Haurtzaro informatzen	3
Hatzak bete lan	19
Euskararen txokoa.....	21
Gu ere kazetari	36
Nahaste berraste	42

TXINPART63

www.haurtzaroikastola.eus

L.G.: SS-129/2001



ARGITARATZAILEA

Haurtzaro ikastola
Elorrondo, z/g · 20159 Oiartzun
☎ 943 49 16 59

oiartzun@ikastola.net

DISEINUA, MAKETAZIOA

ETA INPRIMAKETA

antza Komunikazio Grafikoa

Paper birziklatuan inprimatuta

Hautzaro Ikastolan ikasle guztiek distira egin dezaten, lanean ari gara.

Gure herriko hezkuntzaren norabidea hezkuntza eragileon kezka den garai honetan (Heziberri, Lomce, Hezkuntza eredu berria...), Hautzaro ikastolan aurrera goaz; aurrera goaz elkarrekin: ikasle, irakasle, langile, guraso, herria.

Ikasturte berriaren lehen hiruhilekoa pasatu da dagoeneko, 2015-2016 ikasturtearena hain zuzen ere, Hautzaro ikastolaren 48. ikasturtea. Ez da txantxa alajaina !!

Bide luze honetan, momentu bakoitzean ikastolak aurrera egin du garaiko komunitateko kideen lanari esker, eta horixe da gaur egun ere gure motibazioa eta iparra. Bai, Hautzaro ikastolak etengabeko hobekuntzan aurrera egiten jarraitzen du, eta Txinpart ale berri honetan hainbat adibide jaso dugu. Lan guzti hori bizikidetzaz blai!

Ikastolako bizikidetzaren eremua indartzeko apustua egin dugu eta horretarako hainbat proiektu berriekin hasiak gara eguneroko lanean. Besteak beste, Golden 5 proiektuarekin ikastolako irakasle eta langileak, "Ikaskideen arteko tratua ona lantzeko proiektua" ikastolako gurasoek landu eta adostutakoa eta epe laburrean martxan jarriko duguna, eta Haziak+ proiektu pilotua gure ikastolako maila batzuetan pilotatuko dena.

Bide horretan opor garaia iritsi zaigu, gure ikasleek ongi merezitako garaia. Oporrekin batera Eguberriak ate joka dauzkagu, eta Eguberriekin batera gure herriko hainbat ohitura zahar: San Tomas azoka, Olentzero... eta Txinpart ale berria irakurtzekoa. Ea gustukoa duzun!

hautzaroINFORMATZEN

TXINPART

OHARRA:
WEBGUNEAN ALE OSOA
KOLORETAN IKUS DAITEKE

Zorionak eta Urteberri on!

Ikusi duzuenez, Txinparten itxura aldatu egin da. Aldaketa nabariena aldizkarian erabili den papera izan da, ikasleekin lantzen dugun modura, gure ingurua eta natura zaintzeko asmoz. Hemendik aurrera, paper birziklatuarekin egingo da. Beste pauso bat eman dugu, ea denok pausoka-pausoka joanez, lortzen dugun gure ingurua zaintzea.



“HAUR ESKOLAREKIN BATERA IKASI DUGU GURASO IZATEN”

Oraingoan, Alazne Mutiloarekin genuen hitzordua. Ez zen, baina, bakarrik etorri! Hantxe azaldu ziren gure haur-eskola familiako parte izandako lau neska-mutilak. Zaharrene-tik gazteenera: Haitz, Izar, Eki eta June Aranburu. Izan ere, **hamar urtez izan dugu Alazne haur eskolan guraso.**

Tertulia goxoan aritu ginen, eta Alaznek gurekin pasatutako urte guztietako hainbat pasarte ekarri zizkigun gogora. Hona hemen laburpen bat:

Lau seme-alabaren guraso zaretela jakinik, kontatuko al zeniguke nolakoa izan zen zuen lehenengo harremana haur eskolarekin?

Senarra hemengoa izanda, bagenekien Oiartzunen bazela haur eskola bat. Baina benetan, egoerak behartu gintuenean ezagutu genuen haur eskola. Lehenengo semea eduki eta nik lanera itzuli behar izan nuenean, izena eman eta orduan ezagutu genuen hobeto haur eskola. Garai hartan, Karrikan hasi zen gure seme Haitz, 2005eko irailean, 5-6 hilabete zituela. Ainhoa Garañorekin hasi zen eta, egia esan, niri, ama bezala, emozionalki, harengandik banantzea uste baino gogorragoa egin zitzaidan. Baina oso ongi joan zen! Hezitzaileek ere goxo-goxo hartu gintuzten, bai haurra, bai ni... Oso esperientzia ona izan zen hasieratik. Ez berak ez hurrengoek ez dute esperientzia txarrik izan egokitzapenari dagokionez, gradualki egin izan dugulako. Hasiera oso ona izan zen.

Beraz, lau haurrek gurekin igaro al dute ziklo osoa? Sehasketatik hasi al ziren guztiak?

Bai! 2005ean Haitz hasi zen, semerik zaharrena, Karrikan sehasketan. Bertan pasatu zituzten bi ikasturteak lehenengo hiru seme-alabek. Bi urteko geletan, leku desberdinak ezagutu ditugu, ikastolako bi urteko gelak eta baita Urmendi eraikina ere. Gazteenak bertan egin du etapa osoa. Gertatu izan zaigu, aldi berean, bat Karrikan egotea, eta bestea, berriz, ikastolan. Juneren kasuan, aldiz, gertutasuna izan dugu eraikin berriaren eta ikastolaren artean. Guztira 10 ikasturte jarraian egin ditugu ikastolan, 2005eko irailean hasi eta 2015eko uztailan bukatuta.

Pasatutako urte guztiengatik, Karrikarekin halako harreman berezia izan duzue, ezta?

Bai. Auzoa lehendik ezagutzen genuen, baina ez haur eskola. Karrika, guretzat, familia biltzeko etxetxo bat bezala izan da. Ipuinetako etxetxo bat bezala deskribatu izan dugu askotan etxean. Familia biltzeko xarma bereziko etxetxo bat, kanpoko lorategi eta guzti, naturan oso txertatua.

Gure ideiekin bat datorren haur eskolarekin egin dugu topo

Irakasle batekin baino gehiagorekin egongo zinteen hainbeste ikasturtetan, ezta?

Zaharrena Ainhoa Garañorekin egon zen ziklo osoan zehar. Izar, adibidez, Agurtzane Etxeberriarekin hasi zen; gero, Leire Mendizabalekin egon zen; eta bi urteko geletan, berriz, Rexurekin amaitu zuen etapa. Eki Aiora eta Juditekin hasi zen eta, bai ertainetan, bai bi urteko geletan, Annerekin egon zen, baita Kororekin ere ordutegi osaketetan. Gazteenak, berriz, Maitanerekin egin du etapa osoa. Beraz, zaharrenak eta gazteenak ziklo osoa irakasle berarekin egiteko aukera izan dute, eta tarteko biek, berriz, urtero aldaketa izan dute. Baina, egia esan, denekin egon gara oso gustura, bai gu, bai haurrak.

Zuen etxeko “altxor txikiak” beste baten eskuetan uzteko konfiantza handia behar da, ezta? Zer esan-gozenuke horren inguruan?

Dudarik gabe, guk ere seme-alabak etorri zaizkigunean ikasi dugu guraso izaten. Eta berdin haur eskolarekin ere. Horretan, sorpresa eraman nuen. Izan ere, aurretik haur eskolen inguruan nuen ideia haurren zainketa soilarekin zegoen lotuta. Baina Oiartzungo Haur Eskolan konturatu naiz, zainketaz gain, heziketari ere garrantzi handia ematen zaiola. Horretaz aparte, haur eskolako hezitzaileen eta gure arteko elkarlana nabarmendu nahi genuke. Gure ideiekin bat datorren haur eskolarekin egin dugu topo. Bertan topatu ditugun pertsonak hasieratik konfiantza handia eman digute. Hasieran,



hurbiltzeko konfiantza behar izaten duzu, baina oso lasai joan izan gara beti lanera, bueltakoan ongi topatu baititugu haurrak. Beti izan dugu inpresioa gurekin zein aitona-amonekin bezalaxe egon izan direla haurrak zuekin. Haur eskolako janaria da guk beti asko baloratu dugun beste alderdietako bat. Alegia, bertan egindako janaria izatea eta haurrek, elkarrekin, gauza bera jatea.

Aitona-amonen harira... Aipatu beharrean gaude batez ere amonen inplikazioa, ezta?

Gure kasuan, kontziliazioa esaten zaion horretan, ordu asko jarraian eman behar izan ditugu lanean, baita haurrak txikiak izan direnean ere. Orduan, oso ohikoa izan da nik haurrak goizean utzi eta, gero, arratsalde

Beti izan dugu inpresioa gurekin zein aitona-amonekin bezalaxe egon izan direla haurrak zuekin

Gure sentsazioa da haur eskolarekin batera ikasi dugula guraso izaten

gehienetan, amona batek zein besteak jasotzea. Haiek ere ederki ikasi zuten Karrikarako bidea, bi urteko geletakoa, Urmendirakoa... Gu bezalaxe, haiek ere haurren heziketaren oso parte garrantzitsua izan dira.

Gure haur eskolan pasatutako etapa horretaz guztiaz, zer nabarmenduko zenuke?

Dudarik gabe, oso esperientzia ona izan da. Gomendagarria. Gure sentsazioa da haur eskolarekin batera ikasi dugula guraso izaten.

Gure aldetik, ez dugu beste hitzik zuentzat. Mila esker guztiagatik eta ongi izan, familia!

*ANNE HERZE eta MAITANE CRESPO
Urmendi haur eskolako hezitzaileak*

Ibilaldiak eta ekintzak

HAUR HEZKUNTZA 1-2-3			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
HH1	URRIAK 6	GURUTZERA	GAZTAINAK BILTZEA
HH1	URRIAK 23	TXARAKO BASORA	ELKAR EZAGUTU ETA INGURUNEAZ GOZATZEA
HH1	URRIAK 27	IBARGAINGO PARKERA	ETXEAK EGITEKO MAKILAK BILTZEA
HH1	AZAROAK 5	BIDEGORRITIK ALTZIBAR AUZORA	ELKAR EZAGUTU ETA INGURUNEAZ GOZATZEA
HH1	AZAROAK 6	IBARGAINGO PARKERA	ELKAR EZAGUTU ETA INGURUNEAZ GOZATZEA
HH1	AZAROAK 9	BIDEGORRITIK TXARAKO PARKERA	ELKAR EZAGUTU ETA INGURUNEAZ GOZATZEA
HH1	AZAROAK 10	ITURRIOTZ AUZORA	ELKAR EZAGUTU ETA INGURUNEAZ GOZATZEA
HH1-2-3	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
HH1-2-3	ABENDUAK 5	ELIZALDE AUZORA	SAN NIKOLAS EGUNA OSPATZEA
HH1-2-3	ABENDUAK 18	IKASTOLAN SAN TOMAS AZOKA	EUSKAL KULTURA IKASI ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
HH1-2-3	ABENDUAK 24	ELIZALDERA	GABON KANTAK ABESTEA
HH2	IRAILAK 29	GURUTZERA	GAZTAINAK BILTZEA
HH2	URRIAK 14	MENDIBILGO PARKERA	HOSTOAK BILTZEA
HH2-3	URRIAK 26	NIESSEN ARETORA	ZINEA EUSKARAZ
HH3	URRIAK 1	HONDARRIBIRA	GARRAIO DESBERDINAK IKUSTEA
HH3	URRIAK 22	EGI-LUZE SAGARDOTEGIRA	SAGARDOAREN PROZESUA EZAGUTZEA
HH3	AZAROAK 26	ARDITURRIRA	TXONDORRA IKUSTEA

Lehen Hezkuntza 1. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH1 1-2 maila	IRAILAK 24	DONOSTIAKO BELODROMORA	DONOSTIAKO ZINEMALDIAN PARTE HARTZEA
LH1 1 maila	URRIAK 2	MUNUAUNDIREN ORDEZ, ITURRIOTZ AUZORA	GURE ARTEKO HARREMANAK SENDOTZEA
LH1 1 maila	AZAROAK 12	LUBERRIRA	DINOSAURIEN GAIA SENDOTZEA
LH1 1-2 maila	ABENDUAK 5	ELIZALDE AUZOAN	SAN NIKOLAS TXIKIA OSPATZEA. EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 1-2 maila	ABENDUAK 3	IKASTOLAN	EUSKARAREN EGUNA OSPATZEA
LH1 1-2 maila	ABENDUAK 17	IKASTOLAKO SAN TOMAS AZOKAN	EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 1-2 maila	ABENDUAK 24	ELIZALDE AUZOAN	GABON KANTAK ABESTEA. EUSKAL KULTURA EZAGUTZEA ETA EUSKAL TRADIZIOETAN PARTE HARTZEA
LH1 2 maila	Urriak 2	Gurutze auzora	Gure arteko harremanak sendotzea
LH1 2 maila	Urriak 13,14 eta 15	Urmendi haur eskolara	“Zein txikia jaio nintzen” unitatearen lanketa burutzea
LH1 2 maila	Azaroak 6	Hondarribira	Erdi Aroko hiribildua ezagutzea
LH1 2 maila	Azaroak 10	Oiartzunen	Oiartzungo Erdi Aroko eraikuntzak ezagutzea
LH1 2 maila	Azaroak 20	Ikastolako jangelan	Erdi Aroko dantza emanaldia eskaintzea LH1mailakoei
LH1 2 maila	Azaroak 20	Ikastolako geletan	Erdi Aroko erakusketa gurasoei eskaintzea
LH1 2 maila	Azaroak 26	Pasai San Pedrora	“Boga boga marinela” unitatea lantzea



Ibilaldiak eta ekintzak

Lehen Hezkuntza 2. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH2 3-4 maila	Irailak 24	Zinemaldira	Zinemaldiaz gozatzea
LH2 3-4 maila	Irailak 24	Cristina Eneara	Zikloko harremanen lanketa
LH2 3-4 maila	Irailak 28 eta 29	Korridorean	DBHkoen aurkezpena Agenda 21
LH2 3 maila	Urriak 10	Arragua eta Ugaldetxora	Txanelako 1º gaiaren lanketa
LH2 3 maila	Urriak 23	Gurutze eta Ergoienera	Txanelako 1º gaiaren lanketa
LH2 3-4 maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen eguna ospatzea.
LH2 3-4 maila	Abenduak 18	Ikastolako San Tomas azokan	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH2 3-4 maila	Abenduak 24	Iturriotz auzora	Gabon kantak abestea. Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH2 4 maila	Urriak 7	Eskualdeko lau herrietan barrena	Txanela 1. Unitatearen lanketa: Eskualdea ezagutzea

Lehen Hezkuntza 3. zikloa			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
LH3 5. maila	Irailak 25	Bianditz eta Arritxulora	Tutoretza: Taldeak berriak dira, zikloa ere beraz helburua harremanak eraikitzea da.
LH3 5. maila	Irailak 16	Eureka Zientzia museora	Ingurunea: 1 Unitateko (izarrena hautsa) gaiaren lanketa.
LH3 5. maila	Abenduak 3	Ikastolan	Euskararen Eguna ospatzea.
LH3 5. maila	Abenduak 18	Ikastolako San Tomas azoka	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH3 5. maila	Abenduak 24	Ugaldetxora	Euskal kultura ezagutzea eta euskal tradizioetan parte hartzea
LH3 6. maila	Irailak 7	Zumaira	Harremanak sendotzea. Flyshak ezagutzea eta duten garrantziaz jabetzea Txanelako Inguruneke ikasgaia osatzea
LH3 6. maila	Urriak 20	Ergoingo Lu-Berrira	Museoa bisitatzea Txanelako Inguruneke ikasgaia osatzea
LH3 6. maila	Urriaren azken astean	Ikastolan / Gelan	Sexu aniztasunaz jabetzea, errespetatzea, jarrerak aztertzea
LH3 6. maila	Azaroaren lehen astean	Ikastolan / Gelan	Heziketa afektibo sexuala lantzea. Sexualitatea ezagutzea, identifikatzea
LH3 6. maila	Azaroak 20	ikastolan	Antton Mendizabal eskulturagilearen ibilbidea ezagutzea eta ikasleek egin dituzten eskulturak berekin partekatzea. Hitz egitea.

Ibilaldiak eta ekintzak

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4			
MAILA	NOIZ	NORA / NON	HELBURUA
DBH1	Irailak 18	Haurtzaro –Gurutza- Ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
DBH1	Urriak 20	VIII.argazki lehiaketa ikastolan	Argazkigintzaz gozatzea.
DBH1	Azaroak 6	Zientzia astea, Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
DBH1	Abenduak 3	Xabier Eguna ikastolan	Euskararen eguna ospatzea
DBH1	Abenduak 18	San Tomas azoka ikastolan	Gabon kantak abestea. Euskal kulturaren ezagutzea eta Euskal tradizioetan partaidetza
DBH1	Abenduak 24	Altzibarrera	
DBH2	Irailak 18	Haurtzaro –Gurutza- Ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
DBH2	Urriak 20	VIII.argazki lehiaketa ikastolan	Argazkigintzaz gozatzea.
DBH2	Azaroak 6	Zientzia astea, Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea
DBH2	Abenduak 1	Legazpiko Mirandaolara - Segurara	Burdinola, haizeola eta zerrategiek Euskal industrializazioan eta ekonomian izan duten eragina ikustea. Hiribulduak.
DBH2	Abenduak 3	Xabier Eguna ikastolan	Euskararen eguna ospatzea
DBH2	Abenduak 18	San Tomas azoka	Gabon kantak abestea. Euskal kulturaren ezagutzea eta Euskal tradizioetan partaidetza
DBH2	Abenduak 24	Altzibarrera	
DBH3	Irailak 18	Haurtzaro –Elorrietako kaskora- Ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
DBH3	Urriak 20	VIII.argazki lehiaketa ikastolan	Argazkigintzaz gozatzea.
	Azaroak 6	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea.
DBH3	Azaroak 30	AESLEME – Hitzaldia ikastolan	Moto istripuek sortarazten dituzten ondorio larriaz jabetzea
DBH3	Abenduak 3	Xabier Eguna ikastolan	Euskararen eguna ospatzea.
DBH3	Abenduak 18	Ikastolako San Tomas azokan	Gabon kantak abestea. Euskal kulturaren ezagutzea eta Euskal tradizioetan partaidetza
DBH3	Abenduak 24	Gurutza	
DBH4	Irailak 18	Haurtzaro –Elorrietako kaskora- Ikasturte hasierako ibilaldia	Irakasle eta ikasleen arteko harremanak sendotzea
DBH4	Urriak 6	Piragua ikastaroa - Bidasoan	Santiagotarrak elkarrekin eskaintako kirol jarduera
DBH4	Urriak 20	VII.argazki lehiaketa ikastolan	Argazkigintzaz gozatzea.
DBH4	Urriak 20	Cabreroren hitzaldia – Ikastolako areto nagusian	Orientazio saioa guraso eta 4. Mailako ikasleentzat
DBH4	Azaroak 6	Zientzia Astea Donostian	Zientzia eta teknologia astean parte hartuz proiektuak ezagutzea.
DBH4	Azaroak 11	Irudi berriak	Etikako irakasgaien inguruko lanketa
DBH4	Azaroak 24	Hitzaldia: Hiesa	Hiesaren eguna Haurtzaron
DBH4	Abenduak 3	Xabier Eguna	Euskararen eguna ospatzea.
DBH4	Abenduak 15	top@dip:Passion for knowledge quantum13	Zientziaren inguruko proiektuan parte hartzea, zientzia zientzialarien eskutik
DBH4	Abenduak 18	San Tomas azoka ikastolan	Gabon kantak abestea. Euskal kulturaren ezagutzea eta Euskal tradizioetan partaidetza
DBH4	Abenduak 24	Iturriotza eta Ugaldetxora	Gabon kantak abestea. Euskal kulturaren ezagutzea eta Euskal tradizioetan partaidetza



8.

ARGAZKI LEHIAKETA

*Udazken koloretan,
landen lurrinak
zeharkatuz...*

Horrelakoak izan ziren ikasturte hasieran egindako ibilaldiak: aurtengo udazken idor eta beroak utzitako paisaiez gozatzeko aproposak.

DBH 1. mailakoak Learreko malda igo eta Gurutze auzora joan ziren. Hango frontoiaren inguruan hamaiketako egin eta elkarrekin jolasean eta solasean tarte polita pasatu zuten.

Irteeraren aitzakiaz, ohiko Argazki Lehiaketa egin zen, zortzigarrena aurtengoa. Eta ez dira nolanahikoak ikasleek ateratako irudiak, artistikoak benetan.

Saritutakoak, alde batetik, June Manjarres ("Urrutiko lagunak") eta, bestetik, Amaiur Errazkin, Aitziber Erasun eta Udane Ibarguen ("Udazken gorri eta bizia") izan ziren.

DBH 2. mailakoak Elorrietako kaskora joan ziren. Eta adin horretako sasoi ibilbidean zehar azaldu zuten, haien pauso arin eta bizkorrez. Naturaz gozatzeko, kirola egiteko eta elkarrekin ongi pasatzeko... denetarako aukera izan zuten.

Argazki Lehiaketako sariduna Leire Galdos izan zen ("Argiaren bila").

Saritutakoek hurrengo egunetarako hamaiketako goxoak eskuratu zituzten.

Zorionak, eta bapoi!





ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK

Aurten ere gogotsu ekin diogu 2015-2016 ikasturteari eta dagoeneko martxan ditugu eskolaz kanpoko ekintza guztiak. Aurreko ikasturtearen dinamikari jarraituz, izen-ema-teek gorantz egin dute beste behin. 15 ekintza eskaini ditugu aurten, kultur eta kirol arlokoak. Ikasle asko animatu dira haietan parte hartzera, eta zenbait ekintzatan bereziki gora-kada nabarmena ikusi ahal izan da. Hona hemen datu batzuk:

Kirol arloko ekintzak

- Kenpoa: 29 ikasle
- Eskola kirola: *benjaminetan* 77 ikasle, eta *alebinetan* 76 ikasle. Beraz, LH 3. mailatik LH 6. mailara bitarteko 152 neska-mutil ditugu aurtengo eskola kirolean.
- Atletismoa: 46 ikasle
- Xakea: 35 ikasle
- Gorpil gaineko irristaketa: 12 ikasle

Kultur arloko ekintzak

- Euskal dantzak: 86 ikasle
- Jolas txokoa: 91 ikasle
- Eskulanak: 86 ikasle
- Dantza garaikidea: 128 ikasle
- Malabareak: 11 ikasle
- Antzerkia: 37 ikasle
- Bertsolaritza: 12 ikasle
- Dantza txapelketak: 7 ikasle
- Abesbatza: 14 ikasle
- Musika tailerra: 56 ikasle

Aipatu behar dugu Haurtzaro Ikastolako trikitixa eta panderoko taldea ere handia dela. 20 ikasle dabil tza trikitixa ikasten, eta 9 ikasle, panderoa ikasten.

Robotika da ikasturte honetan eskaini den beste ekintza berri bat. Orain artean, zenbait oporralditan eman izan den arren, aurten ikasturte osorako eskaini da. Ikasle asko animatu dira parte hartzera, hots, 42 ikasle, LH 3. mailatik DBH 4. mailara bitartekoak.





Esan bezala ikasleak martxan dira, baina ikasturte guztia dute aurretik, ekintza bakoitzean askotariko gauzak ikasteko, praktikan jartzeko eta, urtero bezala, Ikastola Egunean erakustaldi bikainak emateko! Euskal dantzei, dantza txapelketei, atletismoari eta eskola kirolari dagokienez, urtean zehar izaten diren asteburuetan, jardunaldietan eta dantza saioetan ere parte hartzen dute.

Hala ere, ikasturte amaierarako bakarrik utzi gabe, ikasturtean zehar ere beste ekintza batzuekin emanaldiak prestatzeko animatuta gaude, eta halaxe egiten ahaleginduko gara!

Aurten, 40 monitore ari dira gurekin lanean eta ez dugu aipatu gabe utzi nahi ikasle horiek guztiak prestatzen aritzen diren monitoreen lan bikaina!

Urtero tarte txiki bat eskaintzen diogu ekintzetako bati, eta oraingoan, bertsolaritza aukeratu dugu. Ea zer dioten bertsolaritzako monitore diren Jon Otegi eta Iraitz Mateok!

Zein da bertsolaritzaren helburua eskolaz kanpoko ekintzetan?

Jon Otegi: Nire iritziz, bertsolaritzaren helburua ez da, soilik, gazteen artean bertsolaritza sustatzea, baizik eta baita gazteek bertsoez gozatu eta une ederrak igarotzea ere. Horrez gain, gure hizkuntza indartzea ere bada haren xede edo helburuetako bat.

Iraitz Mateo: Nire ustez, eskolaz kanpoko ekintzetan bertsolaritzaren helburua haur eta gazteen artean bertsozaleasuna sortu eta bertsolaritzara hurbiltzea da. Alde batetik, hizkuntzaz eta sormenaz baliatuz bertsoan ikastea edota bertso munduaren inguruko beste eginkizunak (gai jartzailearena, adibidez) probatu eta nork bere tokia aurkitzea. Hizkuntzarekin jolastea, azken finean. Gainera, bertan sortzen den giroa oso polita izaten denez, adin ezberdinetako lagun asko egiteko aukera izaten dute.

Zer lantzen da?

Jon: Bertso eskolan hitzekin jolas egitea lantzen da. Lanik errazenetik hasita, pixkanaka, buruari gehiago eragin diezaioten eskatzen zaie gazteei. Hasieran, errimekin jolasak egiten dira; ondoren, mantso-mantso, bertsoak edo koplak idazten hasi...

Iraitz: Bertsolaritzaren alor guztiak lantzen saiatzen gara. Bertsoa bera, errimategia, metrika, doinutegia, gaiak... Hala ere, kontzienteki edo inkontzienteki, hizkuntza eta sormena lantzen ditugu ariketa edo jolas guztietan.

Nolakoa da ikasleen erantzuna saioetan? Saioetara gustura etortzen direla nabaritzen duzu?

Jon: Haiek saioetan duten jarrera ikusita, oso gustura etortzen direla dirudi. Ikasteko gogoz etorri ohi dira eta gogoia duten bitartean jartzen zaizkien erronkak edo lanak gaindituz joaten dira, denboraren poderioz bertsoan modu natural batean aritzeko ahalmena eskuratuz.

Iraitz: Ikasleak gustura etortzen direla uste dut; izan ere, beti dute saioa luzatzeko gogoia. Ariketak egiten ditugunean ere, oro har oso positiboa da haien jarrera.

Zer da gutxien eta gehien gustatzen zaiena?

Jon: Gutxien gustatzen zaiena bat-batekoa izaten da normalean, ikasleek jauzi edo aldaketa handia eman behar dutelako; paperean aritzetik bat-batekoa lanean hastea ez da dirudien bezain erraza. Gehien gustatzen zaienari dagokionez, errimekin egiten diren jolasak aipatuko nituzke eta, behin bat-batean hasita, lan horretan ere asko disfrutatzen dutela iruditzen zait.

Iraitz: Nire iritziz, pertsona oro mundu bat da, eta talde bat... zeresanik ez! Beraz, taldearen baitan, gauza bat edo beste gustatzen da gutxien. Hala ere, gehienetan, errimategia lantzeko ariketak gustatzen zaizkie gutxi-xeago, ez direlako hain dinamikoak, baina jolasen bidez lantzen saiatzen gara, gusturago moldatzen direlako. Gehien, berriz, bertsoak sortzea gustatzen zaie.

Malen, Aitor, Araitz, Markel eta Malen, zuek bertsolaritzako saioetan parte hartzen duzue.

Zergatik eman duzue izena jarduera horretan?

Malen E.: Bosgarren mailan bertsolaritza lantzen hasi ginen Ander Lizarralderekin, eta oso gustura egoten nintzen klase horietan. Ondo pasatzeko asmoz, LH 6. mailan nire lagunak eta ni bertso eskolan apuntatu ginen.

Aitor: Askok gustatzen zaidalako.

Araitz: Bosgarren mailan lantzen hasi nintzen Ander Lizarralderekin. Ederki pasatzen nuenez, hurrengo urtean bertso eskolara apuntatzeko animatu gintuen, eta hainbat lagunek eman genuen izena. Orduz geroztik, hementxe nabil, urtez urte bertso sorta ederra eginez.

Markel: Bertsolaritza asko gustatzen zaidalako.

Malen: Bertsoan aritzea asko gustatzen zaidalako.



Bertsolaritzako saioetatik zer da gehien gustatzen zaizuna?

Malen E.: Lau oinak eman eta bertsoa osatzea asko gustatzen zait, baita errimategia eta doinuak lantzea ere.

Aitor: Doinuak lantzea.

Araitz: Gaia emanda koplatan aritzea.

Markel: Oinak eman eta bertsoa osatzea.

Malen: Gaia jarri eta bertsoa osatzea.

Zer duzu nahiago: bat-batean edo idatziz aritzea?

Malen E.: Nahiago dut bat-batean aritu, baina, egia esan, oso gustura aritzen naiz bietan.

Aitor: Idatziz aritzea.

Araitz: Nik nahiago dut bat-batean aritu, baina idatziz ere gustura aritzen naiz.

Markel: Bat-batean aritzea.

Malen: Nahiago dut bat-batean aritu, gutxiago urduritzen naizelako.

*Kurtsoa gogotsu hasi dugu
bertsoak bete ta bete
ariketa politak eginez
jolasak, besteak beste,
jada lagun onak egin gara
nahizta ez izan hainbeste.
Giro ederra izaten dugu
ta animatu zaitezte!*

Doinua: "Loriak udan ihintza bezala"

Mila esker, Elixabete!

Azken urteotan, ikasturte bakoitzeko hiru aleak argitaratu aurretik, lan guztiak Elixabete Perez Gaztelu guraso ohiari pasatu dizkiogu, eta oso epe laburrean lanak zuzenduta bueltatu dizkigu. Bere borondate onenarekin eskainitako denbora horregatik guztiagatik, eskerrak eman nahi dizkiogu, Txinpart aldizkariko lantaldearen eta ikastola osoaren izenean.





ZIENTZIA ASTEA

(2015-11-16)

Urtero, azaroko lehenengo astean, ZIENTZIA ASTEA ospatzen da. Aurten, Hartzaroko DBH 3. eta 4. mailetako ikasle taldetxo bat Donostian izan ginen, eta zientzia ikusi, behatu, ukitu, probatu eta esperimendatzeko aukera izan genuen.

Makina bat zientzia stand eta jarduera ikusi genituen San Telmo Museoan, Donostiako Parte Zaharrean. Gainera, UPV/EHUko ikasle, ikertzaile eta irakasleek ederki azaldu zizkiguten hainbat eta hainbat esperientzia eta ikerketa:

- Uhinak: argiaren eta soinuaren hedapena aztertu genuen.
- Automatikako proiektuak: hala nola mahai-futbol automatiko bat, lebitatzaile magnetiko boladuna eta mikrokontrolatzaileen orkestra bat...
- Energia berriztagarriak: anemometroak eta potentziometroak, Pelton miniturbinak, eguzki plakak...
- Fisikako esperimenduak: fisika dibertigarria izan daiteke, eta hala frogatu zuen stand horrek. Van der Graaf generadore bat probatu genuen, adibidez. Ikusi nolako orrazkera!
- Arkatza eta papera hartu eta matematikaren munduan murgildu ginen.
- Nanozientziaren bidez, materialek nanoeskalan duten egiturari esker hartzen dituzten propietate singularrak ezagutu genituen.
- Eta beste hainbat gauza ere ikasi eta ikusi genituen.

Zeinen ongi pasatu genuen!





Haurtzaro Ikastolako MENDI TALDEA

2015-11-01
ERGOIEN-OIARTZUN

Udazkeneko giro aparta lagun izan genuen ikasturteko lehenengo irteeran. Presarik gabe, Ergoien auzoan hasi eta maldan gora ekin genion Pikoketara doan Burkondo bidetik. Leuneko harkaitza ezkerretara utzi eta Gorrinzulo inguruko zelai eder batean egin genuen hamaiketakoa. Bidezidorretik, ikuspegi zoragarriari erreparatuz eta ia konturatu gabe, Gurutze auzora iritsi eta Urkaberako bidean aurrera egin genuen. Bukaeran, Urkabeko gaina helburu bagenuen ere, "demokratiko-ki" plazarako bidea laburtzea erabaki genuen, eta horrela eman genion amaiera ibilbideari. Giro onean.

2015-12-13
NEGU JAIA

Oiartzungo txokoetan barrena antolatu dugu ahalik eta ibilbide erakargarriena, zailtasunik gabekoa baino ikasle eta gurasoak gosetzeko modukoa; izan ere, bukaera Karrika auzoko elkartearen bazkari goxo batekin eman genuen.

2015-01-30/31
IRAUPEN ESKIKO IKASTAROA SOMPORTEN

Berriz ere elurretara! Bi egunetan zehar, zaleak eta lehenengo aldia dutenak animatu nahi ditugu Frantzia dagoen Somport estazioan (1.600 m) ikastaroa egitera, bakoitzaren mailaren arabera izango baita. Horretarako, hainbat begirale eta irakasleren laguntza izango dugu. Aurten ere, eskiatzeko lekutik oso gertu dagoen Candanchuko aterpe batean hartuko dugu ostatu. Nahi duenak erraketekin zeharkaldia egiteko aukera ere izango du.

2015-02-21
XOXOTE (912 m, Azpeitia)

Izarraitzeko mendilerroan kokatuta dagoen Xoxotek Erlo eta Kakuta ditu alboan. Attolatik ibilbide erraza dugu Xoxoteko aterpe atsegineraino. Hasierako pinudia laster bukatuko da belar gozoz inguratutako bidea hartzeko. Ur freskoa duen iturria izango dugu hamaiketarako aitzakia emango digun tokian.





Aterpetik Xoxoteko gailurrera bost minutu besterik ez dago eta, hura gailendu ondoren, Azpeitian bukatuko dugu ibilbidea.

2015-03-13

MANDOEGI (1.046 m)

Bide batez, Altzegi, Urepel eta Mandoegi igotzeko aukera izango dugu Leitzalarrea atsedentleku zoragarritik abiatuta. Gainera, ikuspegi ederrak dituzte hiru mendi horiek (Mandoegitik Donostia ikusten da).

XIX. mendean, Leitzako Udalak aspaldian larre zen hura berriz ere baso bihurtzea erabaki zuen eta, haritz bat moztearen truke, 10 landatzeko konpromisoa hartu zuen. Gaur egun, larre eta haritz ugari dago bertan.



2015-04-23/24

KANPALDIA

Zehaztu gabe dugu oraindik kanpaldia egingo dugun tokia, baina lo egin edo izarrei begira egon, bigarren egunerako ibilbide egoki eta polita prestatzea espero dugu.

2015-05-22

RAFTINGA BIDARRAIN

Ikastolako web-orrian ikus daitezke iazko argazkiak, beste irteerekin batera, baina hauek bereziki ederak dira. Zergatik? Ba, bertan, hainbat egoera eta aurpegi xeblebre ikus daitezkeelako Errobi ibaian behera raftinga egiten ateratakoak.

Bidarrain bazkaldu eta iparraldeko herri txiki, polit eta ikusgarri honek aukera emango digu arratsaldeari ordu batzuk lapurtzeko. Bertako trinket txukun eta ikusgarria ere jokorako aproposa dugu. Ez dago aitzakiarik, busti gaitezen!

2015-06-04

HAURTZARO IKASTOLA EGUNA: GINKANA

Tirolina, jokoak, jolasak, ibaian behera gorpilen gainean jaistea, bizikletarekin aurrera egitea... hori guztia gurasoen laguntzari esker antolatzen dugu urte amaierako jai erraldoian.

Irabazi edo ez, bost axola!
Goza dezagun gureaz, gureekin!



ESKOLAKO AGENDA 21

Jasangarritasunaren aldeko konpromisoa, pausoz pauso garatzen.

Aurten ere Eskolako Agenda 21 programan parte hartuko dugu.

Europa 2020 estrategia eta Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020 betetze aldera, GURE IKASTOLAN jasangarritasun irizpideak eta baliabideen kontsumoa murrizteko eta kontrolatzeko neurriak sistematikoki txertatu nahi ditugu ikastolako bizitzan (gure curriculum proiektuan, zein kudeaketarekin eta komunitatearen parte-hartzearekin zerikusirik duten jardunbideetan).

• Curriculumean:

Urterik urte, Eskolako Agenda 21eko askotariko proiektuak maila zehatzetan integratzen dira, oinarrizko hezkuntza bukatzerako ikasleek ingurumen hezkuntzaren konpetentzia pertsonalak, zientifiko-teknologikoak, sozialak eta zibikoak gara ditzaten.

Ingurumena errespetatzeko balioa hedatu nahi dugu, eta kontsumo arduratsua eta herritartasun demokratikoa ere bai.

Ingurumen arazoak aztertzean ingurune soziala ere kontuan hartzen da, eta aurre egiteko orduan elkartasuna eta irudimena lantzen saiatzen gara.

Udalerriko taldeekin (GKEak, elkarteak...) proiektuak garatzeko elkarlana sustatzen du ikastetxeak.

Ikastetxearen ingurua ezagutzeko ekintzak egiten ditugu: balio natural eta sozialak, dauden arazoak...





UDAZKENEKO FRUITUAK



• Kudeaketa konpromisoak:

Baliabideak erosterakoan gordeko dira jasangarritasun irizpideak (adibidez, paper birziklatuaren erabilera, produktu birziklatuak, birzikla daitezkeenak eta hurbi-lekoak lehenestea, produktua/baliabidea behar bezala erabilia eta hondakinak egoki kudeatuta).

Baliabideak (ura, papera, energia...) modu jasangarrian kudeatzen ditugu (baliabideen kontsumo datuak kalkulatu eta ebaluatu, energia aurrezteko lanak egin...).

Garraio jasangarria bultzatzen dugu, garraio publikoa lehenetsiz, bizikleta erabiltzeko erraztasunak emanez...

Gure ingurunea zaintzeko pausoak egin nahi ditugu: naturguneak zaindu eta babestu, barneko eta kanpoko espazioetan hondakinak ez dagoela ziurtatu, hondakinak murrizteko neurriak hartu, hondakinak berrerabiltzeko jarduerak egin...

• Partaidetza konpromisoak:

Gela bakoitzetik Eskolako Agenda 21erako ordezkari bat izendatuko da udal foroetan parte hartzeko, ingurumen batzordea antolatuko da ikastolako estamentu guztien parte-hartzea bermatuz, udalerrian antolatzen diren ekintzetan parte hartuko dugu...

Beraz, giza eta ingurumen beharrei erantzunez, eta gure ingurua hobetzeko konpromisoaren balioak eta jarrerak sustatzeko, ikasturtez ikasturte jasagarritasunaren aldeko konpromisoak, helburuak eta jarduera irizpideak berrikustea, zabaltzea eta indartzea da gure asmoa.

HH zein LH eta DBHn gogotsu aritzen dira urtero. Aurten, gainera, DBHn, berrikuntzak heldu zaizkigu. Alderdi soziala lantzeko arlo berrian, ikasle taldeak antolatu ditugu Eskolako Agenda 21eko gaiak lantzeko. Hitzak emateaz gain, ekintzak egiteko tarteak ere eskaini nahi diegu gure ikasleei. Elkarlanean, ingurune hobea lortzea da helburu nagusia, baina baita herritar aktibo eta ekintzaileak hezteak ere.

Gurasoen laguntza ere ezinbestekoa zaigu. Ziur gaude lan handia egiten duzuela zuen seme-alabek ohitura egokiak eduki ditzaten, eta horren bitartez, gurasoak animatu nahi ditugu gurekin IKASTOLAN ere lan horietan parte hartzera. Ingurumen batzordeko kide izateko gogoz bazabiltzate, eman izena ikastolan!

Eta bukatu baino lehen...

Urteko gaia zein den? Aurreko urteetako ildoei jarraituz, **ELIKADURA ETA HONDAKINAK**.



HAUR HEZKUNTZA 1

ELKARREKIN ONGI PASATZEN

**IKASTOLAN HASI ONDOREN,
BERTAKO TXOKOAK ETA KIDE
BERRIAK EZAGUTU DITUGU.**

**GAINERA, AURTENGO
UDAZKENEKO EGUN GOXOAK
APROBETXATUZ, HERRIKO
HAINBAT TOKITARA JOAN GARA.
BESTEAK BESTE, GURUTZE,
IBARGAIN, TXARAKO PARKEA,
BIDEGORRIA, ALTZIBAR ETA
ITURRIOTZ ALDERA EGIN
DITUGU IRTEERAK.**

**EDERKI PASATZEN ARI GARA
IKASTOLAKO HASIERA
HONETAN!**

HH 1eko IKASLEAK





HAUR HEZKUNTZA 2 UDAZKENA




UDAZKENA DELA ETA, HH 2ko
NESKA-MUTILAK GAZTAINA BILA
JOAN GARA URKABERA ETA,
HANDIK, TIPI-TAPA, GURUTZEKO
FRONTOIRA. BERTAN BAZKALDU
ETA JOLASTEN IBILI ONDOREN,
IKASTOLARA ITZULI GARA.
IBILALDI HONETAN EDERKI ASKO
IKUSI DUGU UDAZKENEKO
KOLOREAK NOLAKOAK DIREN.



HORRETAZ GAIN, OMAKO BASOA IMITATU NAHIAN,
EGURRAK MARGOTU ETA KORRIDOREAN GURE
BASOA EGIN DUGU.

GARAI HONETAKO GURE IPUINA ("INURRIA ETA
TXIRRITA") KONTUAN HARTUTA, INURRIAK NOLA BIZI
DIREN IKASI ETA INURRITEGI POLITAK EGIN DITUGU.
OSO ONDO PASATZEAZ GAIN, ASKO IKASI DUGU.



eskuttun euskara elkarte



2015eko abendua

Aurten ere, ikasturtearekin batera, urrian txanpa hartu eta gu ere martxan jarri gara. Beti bezala, merendola bat prestatu diegu DBH lehenengo mailako ikasleei ongi etorria egiteko, eta aurten, beste urteetan bezala, lagun dezente animatu dira gurekin batera lan egiteko asmoz. Beraz, gogotsu hasi dugu ikasturte berria euskara bultzatzeko helburuarekin. Gainera, aurten lehen mailatik gogotsu datoz kide berriak, bai kopuruz, bai fundamentuz. Berrogeita hemezortzi lagunekoa taldea osatu dugu eta bagoaz pixkanaka martxa hartzen.

Lehenengo kanpaina azaroaren 23an hasi zen eta abenduaren 4an amaitu da. Bitarte horretan, idatzizko euskara lantzeaz gain, guretzat hain garrantzitsua den Euskararen Eguna edo, txikiek dioten bezala, Argitxoren urtebetetze eguna, ospatu dugu, baita Xabier eguna ere. Oso ongi bideratu dugu kanpaina, eta dagoeneko beste bi kanpainatan daukagu burua, hau da, jolasen kanpainan eta Juul kanpainan.

Horretaz guztiaz gain, herriko hainbat erakunderekin batera, oiartzuera lantzeko taldean parte hartzen ari gara. Ekintza ugari bideratzeko asmoa dugu, besteak beste: iaz egin zen eran, motibazio saioak, oiartzueraz-



ko hitzak bultzatzeko egitasmoak... baita ikastolako hainbat ekintzatan ere: San Tomas azokako aurkezpena, inauterietako jaialdia...

Ikusten duzuenez, lan dezente daukagu egiteko, baina ez dugu gogorik falta. Aurtengo partaideen gogoa ikusita, badakigu esku onetan daudela euskara eta geroz eta indartsuagoa den Eskuttun elkarte.

Animo DBHko ikasle guztiei!



EUSKARAZ BIZI: euskararen eguna

Urtero bezala, Euskararen Nazioarteko Eguna abenduaren 3an ospatu genuen Haurtzaro ikastolan. Goizean, pregoia entzun eta euskararen aldeko konpromisoak hartu zituzten ikasleek; eta arratsaldean, berriz, euskara gogoan hartuta adin ezberdinetako ikasleek ekintza dezente burutu zituzten: Mihiluze jolasa, esketxak, bideo emanaldia...

Aurten, LH eta DBHko ikasleek beren mailetako konpromisoak hartzeaz gain, norbanakoak ere hartu zituzten eta Argitxoren krisilu erraldoia mezuz bete zuten. Mezu horien guztien berotasunaz, krisiluko sua piztuta mantentzea izango da urte osoko helburua.

Gainera, Argitxoren bisita izan genuen. Txikienekin urtebetetze eguna ospatu ondoren, arratsaldeko ekitaldi orokorrean parte hartu zuen eta, pozaren pozez, euskararen alde egindako lana eskertu zigun, horrela, bere krisiluak pizturik jarraituko baitu.

Hori guztia antolatzen Euskaraz Bizi taldea eta Eskuttun ikasleen euskara elkarteak aritu ziren, eta aurrera eramateko ikasle eta irakasleen gogoia eta laguntza jaso zuten.



euskararentXOKOA



euskararentxokoa

San Nikolas Txiki



Kuadrillategi



Kaixo Txinpartzale guziyai!

Aurten'e hasi dugu ikarturte berriya! Beñe biño indartsuo hasi, gañea, 160 gaztek ta 6 hezitzailek osatzen baitugu aur-tengo Kuadrillategi!

Azkeneko urtetan bezela, ostiraletan elkartzen ga, biño aur-ten jende asko giñala ta, taldia bitan banatu ber izan dugu. Hala, DBH 1. mailakuk 17:00-19:00 bittarte biltzen ga, ta DBH 2. mailakuk 19:30-21:30 bittarte.

Ekintza ugari in ttugu, ta gehio itteko gogotsu gaude, biño ez dugu gehio sango... iya gure gaztiak ze saten duten, hoik'e idatzi dute ta seuru interesantio izango dela!

Ongi-ongi pasa gabonak ta datorren urte arte!

Bittartin, in euskaraz!

Kuadrillategiko hezitzaillik

Kaixo denai!

Gu Kuadrillategiko gaztiak ga, Haurtzaro ikastola ta Elizal-deko ikaslik ga ta oain dela gutxi hasi da Kuadrillategin, gure lenengo urtia da.

Oiartzungo gaztetxin biltzen ga ostiraleroko ta oain arte inta-ko ekintzak oso dibertigarriyak izandu dia.

Aukera zutenin, torri gukin arratsaldia pastea!

Kuadrillategiko DBH 1

Kaixo!

Gu Kuadrillategiko DBH 2ko gaztiak ga. Kurtso hasieran plangintza bat in genun hiruhilabete hontako ta ekintza desberdiñak in ttugu: Gaubeltza, jolasak, esketx lehiaketa-ko prepatu, ospakizuna, karaokia, Euskara eguna, Txuri-Urdinea irteera... oangoz behintzat oso-oso ongi pasten ai ga!

Datorren Txinparteko alian jongo ga informatzen ta berri-yak kontatzen!

Animo kurtsuakin ya lehenengo zatiya in dugu ta!

Kuadrillategiko DBH 2



HAUR HEZKUNTZA 3

SAGARDOTEGIAN

UDAZKENA GAIAREN HELBURUA GURE INGURUAN GERTATZEN DIREN ALDAKETAK AZTERTZEA IZAN DA.

BESTEAK BESTE, ZUHAITZAK ETA BERTAKO HOSTOAK, GARAIKO FRUITUAK ETA PERRETXXIKOAK EZAGUTZEA IZAN DA GURE LANA.

FRUITU HORIETAN GURE ARTEAN EZAGUNENETAKO BAT SAGARRA DUGU ETA BERTATIK SORTZEN DEN SAGARDOA. PROZESU HAU BERTATIK BERTARA EZAGUTZEKO ASMOZ, EGI-LUZE SAGARDOTEGIRA JOAN GINEN. ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIEGU BERTAN EGIN ZIGUTEN HARRERA ONAGATIK.





LH 1. zikloa - 1. MAILA

IUPI LEHENENGO MAILAN GAUDE!
BENO HASIERAN EZ GENUEN
HORI ESATEN OSO VADURI GINELAKO,
BAINA ORAIN BAI,
OSO LAN POLITAK EGITEN ARI GARA.
ADEBITEZ BEROBARRAN MAKINAK
ERAKI BITUGU. HOREKIN
BENDASAREN GABARRA JOAN
GARA. BERTAN ASKO IKASI DUGU:
- POSILAK ZER DIREN,
- NOLA JAIOZTEN ZIREN/

- MOLAKOAK ZIREN,
- ZEA DATEN ZUTEN,
- NOLA DESAGERTU ZIREN...
- ERA KUSKETA PRESTATU DUGU ETA
GURASOAK, AITON-AMONAK...
ETORRI DIRA IKUSTERA.
OSO ONDO PASA DUGU.
ORAIN BAI ESATEN DUGUKA:
IUPI LEHENENGO MAILAN
GAUDE!

L.H. AGO MAIZAKOAK





LH 1. zikloa - 2. MAILA

Oiartzunen dauden erdi aroko eraikuntzak ezagutzen

Gaur arratsaldean, Iturriotz eta Altxibar auzoetako Erdi Aroko eraikuntza batzuk ezagutzeko aukera izan dugu. Makutso baserria, Garbuno baserria, Iturriozko dorretxea eta Ugarte errota bisitatu ditugu, eta denboran bidaiatu eta irudimena martxan jarri dugu...

**Eguraldia lagun,
oso arratsalde polita igaro dugu!**





LH 2. zikloa - 3. MAILA

Gure txoko kuttuna

Ikasturte honetan, Txanelan landu dugun lehenengo gaia "GURE TXOKO KUTTUNA" izan da.


Horretarako, pauso hauek egin ditugu:

- **EUSKAL HERRIA** munduan kokatu dugu. Euskal Herriko probintziak eta hiriburuak ikasi ditugu. Horretarako, gelako zoruan egindako mapaz baliatu gara. Txingoka, probintzia bakoitzera joan behar genuen, eta bertako hiriburuak aipatu.
- **Gure herria, OIARZUN**, Euskal Herrian kokatu dugu.
- **Herria osatzen duten AUZOAK** kokatu ditugu. Zer auzo mota diren zehaztu dugu, eta auzo bakoitzean dauden zerbitzuak zerrendatu eta zerbitzu horien funtzioak aipatu ditugu. Horretaz hobeto jabetzeko, zenbait auzotara ibilaldia egin dugu. Gainera, auzoetan bete beharko liratekeen arauak buruzko hitz errota ere egin dugu.
- Eta bukatzeko, gutako bakoitzak bere "**txoko kuttuna**"ren deskribapena idatziz azaldu du.

Argazki hauetan ikus daitezke emandako pausoak:

1. Txingoa
2. Ugaldetxora ibilaldia
3. Gurutzera ibilaldia
4. Txoko kuttuna

Ibilaldi polita, ez da?





LH 2. zikloa - 4. MAILA

Eskualdetik mundura

Gure eskualdea, Oarsoaldea, landu genuen Txanelako lehenengo unitatean. Herri bakoitzeko eraikuntza garrantzitsuak, pertsonaia famatuak, zerbitzuak, festak... aztertu genituen eta, bildutako informazioarekin, txosten mardula osatu genuen talde lanean. Bukatzeko, gainera, lau herrietan barrena irteera interesgarri bat egin genuen.



Baina, lehenengo gaia bukatzen ari ginenean, oso bisita polita izan genuen gelan: Euskal Herria ezagutzera Argentinatik etorritako hiru lagun. Martina, Pau eta Gisela jatorri euskaldunekoak dira eta Argentinako Euskal Etxeetan dabilta lanean. Gustura aritu ziren hainbat gairen inguruan hizketan: beren herrien kokalekua, Euskal Etheen egungo egoera, dantza taldeak, ekintzak... eta, nola ez, euskara. Beren burua euskaraz aurkeztu ondoren, gurea eta beraiena den hizkuntza ikasten ari direla aitortu ziguten.

Oso gustura aritu ginen haiekin solasean, dantzan... Eta matea ere oso goxoa zegoen! Bueno... oso goxoa... hum... desberdina! Goiz berezi harekin, lehenengo unitatea eta bigarrena lotu genituen. Konturatu ginenerako, Amerikaren gaiarekin hasteko desiratzen geunden!





LH 3. zikloa - 5. MAILA

JEAN LURÇAT

5. mailaren hasiera honetan landu dugun artista JEAN LURÇAT izan da. Haren gai kuttuna astroak izan ziren eta tapiz zoragarriak egin zituen.

Artista eredutzat hartuta, hona hemen gure lanak.



EGUZKIAK DIRUDI

ERDIKO PASTELA

TA BADAIGU GURE



IZARRA BADELA

PLANETENTZAT ARGIA

EMANAZ HORRELA

DANTZATZEN ARI DIRA

ZIBOTAK BEZELA





LH 3. zikloa - 6. MAILA

Sexu aniztasuna eta heziketa afektibo sexuala

LH 6. mailan

Ebaluazio honetan, LH 6. mailako ikasleok asko ikasi dugu sexualitatearen aniztasunaz eta heziketa afektibo sexualaz. Bi ikastaro egin ditugu gelara etorri zaizkigun Jone, Gemma, Egoitz eta Teresarekin.

Lehenengoan, Jonek eta Gemmak emandakoan, sexualitatearen aniztasuna landu genuen ordu bat eta hogeita hamarna minutuko bi saiotan. Ondoren, bina orduko bi saiotan, heziketa afektibo sexualaz aritu ginen Egoitz eta Teresarekin.



Bi ikastaro hauek egin ondoren, eta beste askoren artean, alderdi hauetaz konturatu gara:

- Aniztasuna dago gure artean: familia, erlijioa, adina, arraza, aniztasun funtzionalak eta **sexu aniztasuna ere**.
- **Posible da neska izan eta mutila sentitzea**, edo **alderantziz** (genero disforia delakoa dela medio). **Transexuala izatea ez da nahia**, sentimendua baizik.
- Pertsona bat **bisexuala** (heterossexuala-homossexuala) **izan daiteke**, eta bere bizitzan zehar biak bizitu.
- Bakoitzak **sentitzen duenari kasu egin** behar dio, eta ez duen gorputzari.
- Mutila naiz, **mutila sentitzen** naizelako.
- Neska naiz, **neska sentitzen** naizelako.
- Dugun adinean gure **gorputzak aldaketa ugari** izaten ditu, eta haiek **naturalki bizitu** behar ditugu, diskrezioa erabiliz.
- Neskek eta mutilek **matxismoa** desagerrarazten saiatu behar dugu, **badago eta!** (gauzak jasotzeko garaian, erratza pasatzerakoan...)
- **Ez digu lotsarik eman behar** gai hauei buruz **hitz egiteak**.





DBH 1

"WE'VE GOT TALENT!"

Ingelesaren arloan, lehenengo unitatearen barruan, "We've got Talent!" izenekoa, DBH 1eko ikasleek *talent show* bat egin dugu. Abesti bat moldatu dugu, melodia, letra, erritmoa eta abar aldatuz, eta gelakideen aurrean emanaldia egin dugu gero. Hauek dira taldeetako batzuen autobiografiak:

RAPSTAFARI

Our group is called "Rapstafari" and we play rap music. We are Josu, Urtzi, Gorka, Unax and Ander. We met in Haurtzaro school. In our group everybody is twelve. Unax and Urtzi are the dancers. Ander and Gorka sing, and Josu is the pianist. We became famous rapping in the streets. In the future we want to publish a CD.

(Ander Irazoki, DBH1 A)

THE PACIFIERS

Our group is called "The Pacifiers". That is because we play children's music. We are in the same class in Haurtzaro school in Oiarzun, and we are 12 years old. Our names are Peru, Beñat, Irati and Maialen. Peru plays the guitar, and the rest sing and dance. We played for the first time in a concert at Xanistebanak, and we became very famous. We have plans to do a children's program on television soon.

(Maialen Gil, DBH1B)

MONSTERS

Our group is called "Monsters". We play pop music. We are in the same class, DBH 1C, in Haurtzaro school, and our ages are from 11-12. In our band Zuhaitz and Eneko are the dancers, Beñat is the singer, and Laura and Ekain are the musicians. We became famous when we won "The Insuperables". Our plans for the future are to be more famous than Justin Bieber and Abraham Mateo.

(Ekain Sein, DBH1C)



GITARRA

Erabilitako materiala:

- Egurra
- Kola zuria
- Iltzeak
- Pintura
- Pita
- Gitarra sokak

Erabilitako tresnak:

- Lixa
- Zerra
- Mailua
- Grapagailua

Prozedura:

- Lehenik, egurra moztu behar da neurriak kontuan hartuta (neurri bereko bi karratu, neurri bereko lau laukizuzen, eta neurri bereko bi makil luze).
- Gero, egurra kolaz itsatsi behar da, eta egurraren alde batean zuloa egin.
- Ondoren, sokak eta trasteak jarri behar dira eta, azkenik, margotu egin behar da.

Egileak:

Ane Etxebeste, Jon Etxebeste, Ibon Leiza, Anes Huremovic, Leire Ibarguren



GITARRA



Materialak:

- Egurra
- Iltzeak
- Pita
- Torlojuak
- Margoak

Tresnak:

- Mailua
- Zulagailua
- Kola
- Zerra

Prozedura:

Hasteko, materiala lortu dugu. Ondoren, egurrean gitarraren neurriak markatu ditugu, eta moztu egin dugu. Jarraian, gitarraren erdiko zuloa egin dugu, "korona" izeneko tresnarekin. Gero, gitarraren sokak ongi estutzeko, lau zulo egin ditugu, horretarako ere "korona" tresna erabili. Jarraian, pita jarri dugu gitarraren gainaldean (gitarraren sokak) eta lau txintxetarekin lotu dugu. Hurrengo pausoa, instrumentua margotu dugu.

Egileak:

Saioa Udaeta
June Sanzberro
Paulo Gargallo
Oier De Santiago
Garazi Alberdi
Rocio Falero



DBH 2

INSTRUMENTUAK

DBH 2. mailan, hainbat instrumentuk nola funtzionatzen duten lantzen dugu. Soinu mota eta erresonantzia modu ezberdinak lantzeko, ikasleek instrumentuak eraikitzen dituzte.

Hauexek dira instrumentu horietako batzuk:



TXALAPARTA

Taldekidetak:

Amaia Rodrigex
Unai Elgarresta
June Manjarrés
Yvonne Retegui
Jara Campano
Michael Hernandez

Taldean aukeratutako instrumentua:

Txalaparta aukeratu dugu proiekturako euskal instrumentu gisa. Ideia polita iruditu zitzaigun euskal instrumentu bat egitea, gure kulturari buruz gehiago jakiteko.

Beharko dugun materiala:

- Egurra (gehienbat)
- Iltzeak
- Trapuak, kotoia...

Eraikitzeko tresnak:

- Zulagailua
- Guraizeak
- Mailua
- Kola
- Motozerra
- Lixa



TXALAPARTA

Zer material erabili dugu?

- Egurra
- Oihala

Zer tresna erabili ditugu?

- Zerra
- Mailua
- Iltzeak

Nola egin dugu?

- Lehenengo, egurra moztu hiru ohol atera arte.
- Ondoren, bi makil hartu eta biak neurri berekoak izatea lortu.
- Bukatzeko, oinarria egin. Horretarako, bi ohol moztu eta oihal batekin bildu, oholek musika atera dezaten.



MARAKAK

Zer material erabili dugu?

- Botila handi baten erdia
- Arroza
- Makila

Zer tresna erabili ditugu?

- Mailua
- Zerra
- Iltzeak

Nola egin dugu?

- Lehenengo, egurra moztu marakaren heldulekua (zilindro forma) lortu arte.
- Ondoren, botila barruan arroza sartu.
- Jarraian, makila botilaren edateko tokitik sartu.
- Bukatzeko, maraka koloretako zeloarekin apaindu.

Egileak:

Asier Alkorta, Eider Burugain,
Mikel Aranburu, Abel Salaberria,
Anne Arrizabalaga.

TXALAPARTA

ZER DA?

Txalaparta perkusiozko euskal instrumentua da.

Normalean, bi pertsonak jotzen dute. Tradizioaren arabera, txalaparta jotzaileetako bati "ttakuna" ("tukutuna" edo "bia") esaten zaio, eta besteari, berriz, "herrena" ("urguna", "pikatzalea" edo "bata"). Lehenengoak oreka edo ordena ezartzen du; bigarrenak, berriz, desoreka sortzen du.

NOLA DAGO EGINDA?

Egurrezkoa da, eta egurrezko hainbat xafla ditu; bakoitzak nota diferentea jotzen du. Hau da, txalaparta jotzaileek makilaz ohola kolpatzean, bakoitzaren soinua ezberdina da.

Txalaparta hau egiteko, lehenik, egurrezko bi oinarri behar dira xaflak jarri ahal izateko. Haien oinarriak dira eta, haien gainean, lastoz egindako piezak jartzen dira, melodia bat jotzeko orduan soinua egin dezan. Lastoa jarri beharrean, esponja ere jar daiteke (gure kasuan bezala), baita ardi larrua edo antzeko beste edozein material ere. Esponja horien gainaldean, zurezko oholak jarri ditugu, eta egurrezko xafla horiek jotzeko, lau makil behar dira (txalaparta jotzaile bakoitzak bi behar baititu).

MATERIALA

- Egurrezko oholak
- Egurrezko lau makil
- Oinarriak
- Esponja
- Esponjak oinarrietara lotzeko bridak

GARAI BATEAN

Orain dela urte asko, baserritarrek komunikatzeko erabiltzen zuten instrumentu hau; baserritarrek sagardoa egiten zutenean, upeletako sagardoa edateko puntu egokira iristen zenean, txalaparta jotzen zen inguruko gainerako baserritarrei jakinarazteko, eta probatzera joan zitezten deituzko.

EGILEAK

Izaro Telletxea
Laiene Aranburu
Aritz Calvarro
Asier Aristizabal
Malen Elizasu
DBH 2A





DBH 2 eta DBH 3

Gure aldarrikapenak irudikatzen

Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Egunerako artelanak sortzen aritu gara DBH 2. eta 3. mailetako ikasleak Plastika eta Ikus-entzunezko Heziketa irakasgaian.

Hainbat autoreren artelanak behatu eta interpretatzen ikasi ondoren, gure obrak sortu ditugu. Gaiari lotutako gogoetak irudikatu nahi izan ditugu bertan, eta hausnarketa horien bidez aurrerapausoak egin nahi ditugula agertu dugu. Oiartzungo Emakumeen Taldeak antolatutako erakusketan hartu dugu parte, eta gure koadroak udal aretoan ikusgai egon dira.





DBH 4

Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketa

Gure gazteen artean irakurzaletasuna eta sormena sustatzeko asmoz, Elkar argitaletxeak antolatu ohi duen Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketan parte hartzea erabaki genuen DBHko hizkuntza irakasleok. Gauzak horrela, DBH 3. mailako ikasleak jarri genituen lanean, ilustrazioa ipuin bilakatzeko modalitatean. Joseba Beramendik ("Exprai") egindako ilustrazioa abiapuntu hartuta, ikasleek orrialde bateko luzera izango zuen ipuina sortu behar zuten. DBH 3. eta 4. mailetako kategorian, Haurtzaro ikastolako ikasle Aiora Mancheñoren "Izarretatik so" lana izan zen garaile 7. edizioan.

Berandu bada ere, ZORIONAK AIORA!

IZARRETATIK SO

BZ01893, hori zen matrikula, bihotzean gezi bat bailitza iltzurik geratu zaidan zifra. Hamabi bat urte igaro dira istripua gertatu zenetik. Gogoan dut Volkswagen kakalardo more dotorea erosi genuen eguna, saltzaileak kotxearen giltzak eman bezain laster abiatu ginen kostalderantz, itsaso gosez, olatuen mingain hezeek gure gorputzetatik neguaren azken printzak ken zitzaizuten desiraz. Noiz itzuliko ginen, zer jango genuen ala familia kezkatu egongo ote zen ez zitzaigun axola. Gazteak ginen, garai hartako askatasuna genuen, burua txoriz beteta.

Astebete pasa genuen hondartzan, ganba kolorea jarri zitzaigun azkenerako, itsasoko uretan jolasten genuen elkar bustiz, gauzez izarrak ikusten genituen, muxuz eta laztanez beteriko gau amaigabeek etxera bueltatzean jasoko genituen errietak ahantzarazi zizkiguten. Etorkizunerako planak eta guzti egin genituen, bost haur izan nahi zituela esaten zidan txantxetan, nire begiak edukiko zituzten bost ume eder.

Goiz batez, etxera joateko garaia zela esan nion, bai bane-kien ama gai zela FBI-a bera ere mobilizatzeko ni aurkitzearen. Bere irribarre zabal hura egin zuen, hainbeste erakartzen ninduten zuloxoak agertu zitzaizkion masailetan eta arrazoia eman zidan, bere gurasoak ere bihotzekoak emateko zorian egongo zirela. Hala ba, kotxera sartu ginen eta hain momentu ederrak eman zizkigun kostatuz atzean utzi genuen. Bide luzea genuen etxeraino, errepideak amaigabea zirudien eta guztiz monotonoa zen, baina, berak guztia dibertigarri bihurtzen zuen, haren ondoan ez zegoen aspertzirik. Irratia topera jarri eta rock izarrak bagina bezala abestu genuen keinu nabarmenak eta tinpanoak lehertzeko moduko oihuak eginez. Orduan, bat batean, kotxearen makinerian akatsen bat gertatu zen, gurpilak deskontrolaturik zeuden, errepidearen ertzeko burdinazko hesia indarrez urratu genuen, ez zen nahikoa izan gu eusteko, errepidetik atera ginen bortizki, ziztu bizian amildegirantz hegan, oso azkar gertatu zen dena, lurraren talka sentitu nuen, baina, uste dut hori baino lehenago bihotza geratu zitzaidalda sustoaren sustoz. Ez nuen minik sentitu, hutsa besterik ez, ez nintzen ezer, banindoa...

Hiru aste eta bi egun geroago, gela zuri batean esnatu nintzen, beno, niri bi minutu besterik ez zirela pasa iruditzen zitzaizdan, baina gurasoek hiru asteen eta bi egunen teoria baieztatu zidaten negar zotin artean. Gorputza zauriz josirik neukan, hezur hautsien kopurua zenbatesina zen, burua danbadaka nabaritzen nuen, baina, nire kezka bakarra bera non zegoen jakitea zen. Galdetzera ausartu nintzenean espero nuen erantzuna jaso nuen, bera; bera leku hobeago batera joana zen, irribarre zabal harekin unibertso osoa argi zezaken leku batera.

Ordur geroztik, ez naiz istripuaren amildegira itzuli, ez diot itsasoari berriz nire gorputza laztantzen utzi, lagunek diote kakalardo moreak bertan segitzen duela, familiak hala nahi izan zuelako, orain neska mutil gazteak bertara joaten direla kanpatzera eta izarrak ikusten eta bihurrikeriak egiten aritzen direla. Bera ere izarretatik so irudikatzen dut, guztien loa zaintzen, nire ametsak bisitatzen. Hasieran kostatu zitzaizdan onartzea ez nuela amets haietatik kanpo berriz ikusiko. Izerdi patsetan esnatzen nintzen gaueko ordu txikietan garrasi batean, psikologoak bizitako une latzaren ondorengo trauma besterik ez zela esaten zidan, normala zela eta indartsua izan behar nuela, eskerrak familia eta lagunek lagundu zidaten indartsu izate horretan, ez baita dirudien bezain erraza. Azkenean, ikasi dut bizitza ez dela beti nahi bezala irteten eta aurrera jarraitu beharra dagoela, lortu dut beraz begi bustiekin oroitu beharrean merezi duen bezalako irribarre zulodun batekin gogoratzea.

Aiora Mancheño



JESUS CABRERO ORIENTATZAILEAREN HITZALDIA

Jesus Cabrero orientatzailea ikastolara etorri zen hitzaldi bat ematera, ikasketa prozesuan gu motibatze eta orientatzeko asmoz.

Gure iritziz, orientatu baino, gehiago motibatu gintuen; hau da, datozen urteetarako lagundu beharrean, nondik jo eta ikasketetan nola hobetu azaldu zigun. Lan ohituren garrantzia erakutsi zigun, adibide batzuk jarrita.

Hasieran, gizartea kotxe batekin konparatu zuen; hau da, kotxeak funtzionatzeko pieza guztiak garrantzitsuak direla esan zuen. Horrekin zer esan nahi zuen? Gizarteak ongi funtzionatzeko, kotxe batean bezala pieza guztiak behar direla.

Ondoren, adibide batzuekin, pentsatzen jarri gintuen. Nahiz eta denak bide desberdinetatik joan, denak balio berbera dugula; eskubide berberak ditugula.

Hitzaldian zehar helburu batzuk jarri zizkigun. Horrekin esan nahi zigun erabakiak hartzen jakin behar dugula eta, haiek ongi hartuz gero, gure bidetik ongi joango garela.


Oro har, hitzaldia oso interesgarria iruditu zitzaigun. Horregatik, datozen urteetara begira joatea gomendatzen diegu ikasleei.

Udane Alberdi, Naiara Garaia eta Asier Lizarraga



GALDERAK

1. Zer da gehien gustatu zaizuna?
2. Zer da gehien harritu zaituena?
3. Zer ikasi duzu?
4. Zer moduz moldatu zara beste kultura bateko familia giroan?
5. Gomendatuko al zenuke trukean parte hartzea?



EKHIÑE SOROA DBH3

1. Herria, mendiak, itsasoa... Bereziki, hango kultura, egin ditugun jarduera guztiak, bretoiarekin pasatutako momentu guztiak. Etxeko txikiaren irria, ilusioa gu ikusitakoan, anaien poztasuna eta gurasoen guranako interesa.
2. Gure kulturen diferentziak, haien egunerokoa, jateko modua eta izateko modua. Haien ordutegia, haien arteko laguntasuna...
3. Frantsesa gehiago ulertzen; hasieran oso zaila zen, baina, denborarekin, errazagoa da familiarekin elkarriketa bat izatea. Kultura berri bat ere ikasi dut. Jende ezezagunarekin elkarbizitzen, haiengan konfiantza izaten.
4. Hasieran lotsatuta nengoen, ez nekien nola jokatu, nola komunikatu... Egunak joan ahala, erosoago sentitu nintzen, konfiantza apur bat gehiago hartu nuen eta, hortik aurrera, ederki egon nintzen haiekin.
5. Bai. Zoragarria da, kultura berri bat ezagutu eta frantsesa praktikatu dugu, baina politena zure bretoiarekin eta familiarekin egiten duzun harremana da. Betirako oroimenean geratuko zaizun oroitzapen horietako bat da.



Mon expérience en Bretagne



ARAITZ SAGARNA DBH3

1. Bertako paisaia eta kultura bera, hemen goekin alderatuta, oso ezberdinak baitira. Egin ditugun hainbat ekintza ere gustatu zaizkit: Oceanopolis bisitatzea, kayakean ibiltzea, Algen Museoa ikustea, Brest ezagutzea... Beste hizkuntza bat erabiliz, horrelako harremanak sortzea eta horrelako lekuak ezagutzea izan da gehien gustatu zaidana azkenean.
2. Familiarekin nahiz gure bretoiarekin edukitako harremanak, harreman sendo eta atsegina izan baitzen, baita beste hainbat bretoiarekin egindako harremanak ere. Janariak ere harritu ninduten, gure Britainiako etxean behintzat, plater bakarrekin egiten zutelako otordua eta gazta ezberdin asko jaten zirelako. Hemengoarekin alderatuta, oso kultura ezberdina eta bitxia da.
3. Kultura oso ezberdin bat nolakoa den eta ezagutzen ez duzun familia batekin nola bizi; hori da nagusiki ikasi dudana, baina bertako ohiturak eta frantses pixka bat ere ikasi dut. Bertara joan eta konturatzeko zara gauzak nahi gabe ikasten dituzula, aste atsegina delako.
4. Primeran moldatu gara. Familia oso atsegina eta maitagarria zenez, ederki pasatu dugu. Ez genuen komunikatzeko arazorik, era batera edo bestera moldatzen ginelako, ingelesez edo gaztelaniaz, besteak beste, eta horrek asko lagundu digu. Familia oso umoretsua eta dibertigarria zenez, esperientzia ezin hobea izan dugu.
5. Dudarik gabe. Izugarritzko esperientzia da. Primeran pasatzen da eta uste baino askoz gauza gehiago ikasten dira. Beste kultura bateko familia bat ezagutzeko aukera ezin hobea da eta asko disfrutatzen da. Ezin da hitzez azaldu, parte hartzea da aukerarik onena. Animatu!



EKHIÑE RIVAS DBH3

1. Esperientzia oro har, familia berri bat ezagutzeko aukera, gauza berriak ikasteko eta disfrutatzeeko aukera ederra izan dela da gehien gustatu zaidana. Bertan egindako ibilaldiak (adibidez, kayaka, padel surfa, Zientzia Museoa, Oceanopolis...) eta, familiarekin eguna pasatu genuenean, surfa goizean, eta beste lagun batzuekin batera eta haien trukeko kideekin, arratsalde pasa. Orain, haiek noiz etorri zain izango gara, ea nolako esperientzia izatea lortzen dugun. Gu, behintzat, dena ematen saiatuko gara!
2. Azken emaitza: ez nuen uste hain ongi egon, pasatu eta moldatuko nintzenik. Pasatutako momentu horiekin ere harriturik nago, ez nuelako uste horrela izango zenik. Baina pentsatzen nuena baino hobea izan dela esan beharra dago.
3. Hizkuntzaz asko ikasi dut, baita hango ohituraz eta dantzaz ere. Hizkuntza berekoak ez diren beste familia, lagun, etab. batzuekin komunikatzen ikasi dut, gure oztopoak gaindituz, aurrera eginez, egunero pauso berri bat eginez. Bertako kulturen ere zailtasun batzuk eduki arren, esaterako dantzatzeko garaian, hangoen laguntzaz lortu genuen gure zailtasun horiei aurre egitea.
4. Hasieran beldur pixka batekin, baina, egunak pasatu ahala, gero eta hobeto. Haiekin batera, gauza asko ikasi genituen, baita haiek gurekin ere, eta horrekin batera, ederki pasatu genuen, barre eginez.
5. Bai, dudarik gabe. Esperientzia ahaztezina izan delako, nire ustez. Horrelako momentuak behin izaten dira eta ezin da aukera galdu, bertan gauza asko ikasi, landu, eta horrekin batera disfrutatzen delako. Hasiera batean, beste hizkuntza bateko familia batekin aste bat pasatzea, asko jakin gabe, jendeari ez zaio askorik gustatzen, beldurratik edo; baina, egia esan, momentu zoragarriak pasatzen dira zure lagunekin batera: lagun berriak ezagutu, eta orokorrean beste bizimodu bat ezagutzen duzu, hango ohiturak... Errepikatzea espero dut.



LEIRE ISASA DBH 4

1. Hango bizimodua ikusi eta bretoi batzuekin harremanak sortzea. Gehienak guri laguntzeko prest zeuden beti eta haien kulturaren ezaugarri ugari ikasi nituen bretoiei esker. Haiekin sortutako oroitzapenak ez ditut inoiz ahaztuko.
2. Bretoien elikadurak harritu ninduen gehienbat. Otordu bakoitzean elikagai kopuru handia jaten genuen, eta haiek guztiek "bio" zeinua zuten. Ez nuen inondik inora espero.
3. Bretoien eguneroko bizitza nolakoa den eta, oro har, Bretainiaren kulturari buruz jaso dudana informazioa. Bestalde, frantsesez hitz egiteko orduan, segurtasuna neureganatu dut, eta bretoi bat hitz egiten entzutean, hura ulertzeko erraztasun pixka bat ere garatu dut.
4. Esperientzia berezia eta polita izan dela esango nuke. Lehenengo egunean, pixka bat galduta sentitu nintzen, baina, denbora aurrera joan ahala, gero eta erosoago sentitu nintzen nire familiaren ohiturekin.
5. Bai, ikasteko gogo duen edozein ikasleri gomendatzen diot, batez ere, hori egiten baita, hots, ikasi. Bretoiekin harremanak ere sortzen dira, baina, batez ere, ikasteko helburuarekin joan nintzen, ondo pasatzen ikastera, eta helburua, dudarik gabe, bete nuen.



IKER CORTAJARENA DBH4

1. Gehien gustatu zaidana haien eta gure artean sortutako harremana izan da. Oso ongi moldatu gara. Horrez gain, ibilaldiak ere gustatu zaizkit.
2. Gehien harritu nauena eskolatik zein urrun bizi diren izan da. Egunero, ordubete geneukan eskolara joateko, eta beste hainbeste itzultzeko.
3. Komunikatzen ikasi dut, nahiz eta frantsesa oso ongi ez jakin. Komunikatzea erraza dela konturatu naiz.
4. Ongi moldatu naiz eta ez dut arazorik eduki. Familia oso jatorra zen eta, ondorioz, giro ona izan dugu etxean eta familiarean.
5. Erabat gomendatuko nuke trukean parte hartzea, oso ongi pasatu baitut eta, gainera, komunikatzen ikasi dudalako.



BEÑAT LANDA DBH3

1. Bertako kultura eta jendea ezagutzea, gure antzeko egoeran dagoen beste herrialde bat ezagutzea eta egin ditugun jarduerak guztiak egitea.
2. Ordutegia eta janaria batik bat. Oso goiz afaltzen genuen, lotara ere goiz joaten ginen. Janaria ere ezberdina zen guretzat. Goizetan, esnea hotzik hartzen genuen, entsalada gordinik jaten genuen...
3. Gauza asko. Frantses apur bat, bretoien kultura eta ohiturak... baita beste familia arrotz batera ohitzea eta ohituretara egokitzea ere.
4. Hizkuntzarekin zenbait arazo eduki ditugu, baina guk euskarazko eta haiek bretoierazko hitz batzuk irakatsita konpondu ditugu. Lehen aipatu bezala, janaria eta ordutegiak ezohikoak ziren guretzat, baina, bestela, dena beti bezala.
5. Nola ez! Ez nuke bi aldiz pentsatuko berriro joatea eskainiko baligute. Oso esperientzia polita eta aberasgarria da.



INTZA MITXELENA DBH4

1. Gehien gustatu zaidana kultura berria eta ohitura berriak ezagutzea izan da, guretzat oso ezberdinak diren gauzak ezagutu baititugu.
2. Suposatzen nuen frantsesa bretoiera baino gehiago hitz egingo zela, baina ez nuen espero hain gutxi hitz egingo zenik. Nire etxean, adibidez, dena frantsesez hitz egiten zen, nahiz eta seme-alabak eskola bretoi batean zeuden. Gainera, bertako ikasleek ere lagunartean ez zuten bretoiera erabiltzen, frantsesa baizik.
3. Frantsesa ikasteaz gain, beste herrietako kulturak eta ohiturak ere ezagutu ditut, frantsesa liburuetatik kalera ateratu dut...
4. Hasieran, denoi kostatu zitzaigun familia "ezezagun" batera joatea, normala den bezala. Baina, ondoren, etxera iritsitakoan, haiekin hitz egitea besterik ez genuen eta, horrela, pixkanaka, konfiantza hartzen duzu. Gainera, haiek asko laguntzen dizute familian integratzen.
5. Noski. Bizitzan behin edukiko dugulako horrelako esperientzia bat bizitzeko aukera eta, ikasteaz gain, oso ongi pasatzen delako lagunartean. Nik gustura errepikatuko nuke bidaia hau.




NEREA MENDIBURU DBH4

1. Bidaia guztia bere osotasunean gustatu zait. Baina gehienbat etxe batean bakarrik egon ahal izatea. Horri esker ikasi dut bidaiaz eta Britainiaz. Gainera, etxeko guztien arreta eduki ahal izanak asko lagundu dit hobetzen.
2. Hangoen eskuzabaltasuna eta harrera ona. Gainera, bi kulturen artean uste baino desberdintasun gutxiago dago. Bestalde, hizkuntzarekin defendatzeko izan dugun gaitasuna oso ona izan da.
3. Aukera honek hizkuntza asko hobetzeko balio izan dit. Bertako kulturei eta ohiturei buruz ere ikaragarri ikasi ahal izan dugu.
4. Uste baino askoz hobeto. Defendatzeko gai izan naiz eta haien bizimodura ohitu naiz han nintzenean. Bestalde, bertako kultura gustatu zait eta ederki moldatu gara. Berehala egin ginen lagun euskaldunok eta tokatutako familiak.
5. Bai, noski. Esperientzia guztiz desberdina eta aberasgarria delako. Mundu berri batean murgiltzen zara eta, hango ohituretara egokituz, haietaz eta haiengandik ikasten duzu.




OLATZ IRAZOQUI DBH3

1. Gehien gustatu zaidana kultura eta familia ezberdin batekin bizitzea izan da. Esperientzia ahaztezina bizitzeko aukera paregabea da.
2. Gehien harritu nauena izan da, kotxez joanda, ikastolatik 30 minutura bizitzea. Goizero, 40 min lehenago irten behar izaten genuen autobusa hartu eta ikastolara joateko.
3. Kultura guztiz ezberdin bateko familia batekin bizitzen. Ohitura batzuk arrotzak iruditzen zitzaizkidan hasiera batean, baina, gero, ohituz joan nintzen. Askok disfrutatu nuen.
4. Nik uste baino hobeto moldatu naiz. Janaria oso goxoa zegoen eta, etxea txikia izan arren, oso ongi moldatu ginen. Familiak ere asko lagundu zigun integratzen.
5. Bai, dudarik gabe gomendatuko nuke trukean parte hartzea; izan ere, aukera paregabea da beste kultura batzuk ezagutzeko eta lagun berriak egiteko.



OIHANE PEREZ DBH3

1. Familia eta kultura berri bat ezagutzea. Oso atseginak izan ziren gurekin eta, haiei esker, esperientzia ahaztezina bihurtu da hau.
2. Haien ohiturak, kultura, herriak... gureen guztiz desberdinak dira, eta oso arraroa da egun batetik bestera hainbesteko aldaketa izatea.
3. Beste herrialde bateko kulturaz eta ohiturez gain, neure burua egoera berri baten aurrean aurrera ateratzen ikasi dut.
4. Hasieran kostatu egin zitzaigun beste ohitura, bizimodu eta familia batera ohitzea, baina denborarekin momentu ahaztezinak pasatu ditugu haiekin. Oso atseginak izan ziren gurekin.
5. Bai, dudarik gabe. Bizitzeko esperientzia oso polita da. Gauza berri asko ikasteaz eta egiteaz gain, jende bikaina ezagutzeko aukera izan dut. Bi aldiz pentsatu gabe errepikatuko nuke!



OROITZ SEIN DBH4

1. Niri familiaren etxea gustatu zitzaidan asko, oso berezia zelako, eta belardian jolasteko leku asko zegoelako.
2. Batetik, niri asko harritu ninduten haien ohiturek, gure ohiturekin alderatuta, oso desberdinak baitira. Bestetik, ordea, oso gutxi jaten zuten, eta horrek ere harritu ninduen.
3. Hasteko, kultura berri bat nolakoa den ikasi dut, eta haien jokabidea nolakoa den. Haien jokabidea ikusi nuen arte ez nintzen konturatu zenbait arlotan oso ezberdinak garela. Bestetik, konturatu naiz bretoiei buruz nuen ikuspuntua oso ezberdina dela bizi nuenarekiko, uste baino askoz hobea.
4. Oso ongi moldatu naiz; frantsesez ongi jakin ez arren, elkar ulertu dugu, etxean eduki genuen giroa oso atsegina izan zen, ederki hartu gintuzten familiakoek. Gustura eta pozik itzuli nintzen Oiartzuna, oso esperientzia polita izan zen.
5. Bai, gomendatuko nuke, ederki pasatu genuelako. Gainera, ekintza ezberdin asko egin genituen; gehienak oso atseginak eta gustukoak izan ziren, nire iritziz. Oso positiboa izan zen trukea.



ERRONKA 2015



AURREPROBAK

Inoiz baino lehenago hasi da aurtengo erronka! Kilometroak egunaren aurretik adi-adi proba eta aurkezpen bideoa egin ditugu. Adi-adi proban, mailakideen laguntza izan dugu, Udarregi ikastolako bideoen galderari azkar-azkar erantzuteko.

Gero, indarrak hartu eta aurkezpen bideorako ideiak biltzen hasi gara. Gure taldea aurkezteko eta beste ikastolei erronka botatzeko, *Haka* dantzatzea erabaki dugu eta, bideoaren originaltasunari eta egindako lanari esker, gure puntuazioak bultzada handia jaso du.



ERRONKA

Kilometroetan, Eskalagardoan, Sagar Biltzen eta finalean ibili gara. Lehia handia izan da proba guztietan. Finalaren aurretik lehenengo postuan egon arren, zorteak ez digu asko lagundu eta aurtengo bandera Oriok eraman du. Hala ere, egun ahaztezina izan da. Ederki pasatu dugu!

Aurtengo edizioaren helburuetako bat gaitasun aniztetako ikasleen gizarteratzea lantzea izan da, gure inguruko askok zein zailtasun dituzten jabetzeko. Begiak estali dizkigutenean, itsuen bizitza zein gogorra den ohartu gara!





ANIMATZAILEAK

Animatzaileek ere lan handia egin dute egunean zehar; pankarta eta guzti etorri zaizkigu! Goizean goiz, indar gutxirekin hasi arren, gurekin batera animatuz joan dira. Antolaketa bikaina izan da. Arrate, gure laguntzaile jatorra, gurekin ibili da probaz proba animoak ematen. Eskerrik asko gugatik egindako guztia-gatik!

TALDEA


Taldean oso gustura egon gara, eta elkarrekin lan ona egin dugu, batak besteari lagunduz. Ederki moldatu gara eta kapitainen lana ere ezinbestekoa izan da. Gure argazkilariari esker, argazki ederrak ditugu. Datorren urtean bueltatzeko asmoa dugu eta dena emango dugu berriz ere, garaipena eskuratzeko.

Esperientzia ezin hobea da eta, parte hartzeko aukera baduzue, **ANIMATU!**



	+		+		=	14
+		+		+		
	-		×		=	8
÷		-		-		
	×		+		=	11
=		=		=		
1		8		13		

LABERINTOA



HAUR HEZKUNTZA 1 - HH1

Begina zer nolako haur ederrak hasi diren ikastolan!



HH 1A

TUTOREA: IOSUNE COUSILLAS ARAMENDI
GOIAN, EZKERRETIK ESKUINERA

KIRA SUSPERREGI, AIA ZAPIRAIN,
ANDREA ARIZABALO, UGAITZ AGUIRREGOITIA,
IRATI ZABALO, UXOA ITURRIZA,
EKHI SAN JOSE, TEO BARRIOLA,
MIKEL CASTRO ETA IÑAKI LASA.

BEHEAN, EZKERRETIK ESKUINERA

ALAIN ZABALA, AIUR APEZETXEA,
DUNIXE MAKATZAGA, MALEN GAZTELUMENDI,
JARE ZIAURRITZ, LISBETH ORIA,
OIER URRA, ANNE INTXAURRAINDIETA,
LEIRE MONTEERRUBIO, KATRIN LARRAINZAR,
YAGO ETXEZARRETA ETA ALAIN CIRCUJANO.

HH 1B

TUTOREA: AINARA URANGA ETXEBERRIA

GOIAN, EZKERRETIK ESKUINERA

ALAIN HERNANDEZ, IKER LEKUONA,
ANE IGLESIAS, MADDI ZAPIRAIN,
IBAI OLAIZOLA, IRATI ARBELAIZ,
IRATI LOPEZ ETA ELMER GOÑI.

ERDIAN, EZKERRETIK ESKUINERA

LUKA ELLENRIEDER, EILENE CASTELLANO,
ENEKO JIMENEZ, MAIALEN SUKIA,
URKO ALTOLAGIRRE, JARE PUENTE
ETA IRAIDE GARCIA.

BEHEAN, EZKERRETIK ESKUINERA

ARHANE RETEGI, EÑAUT RETEGI,
ANJE ARRUABARRENA, XARE SAGARZAZU,
ANDER MUÑOZ, IZEI CARRIZO
ETA UNAI AMEZTOY.



HH 1C

TUTOREA: ITZIAR MUGURUZA

GOIAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

NAROA GAZTELUMENDI,
ERITZ EGIGUREN, UNAI ETXEBERRIA,
EHARI ITURRI, UNAI MOURELLE,
AIALA URKIZU, IARA ANDRÉS,
SARA AYLLÓN, IZAR IBARGUEN,
MADDI CARRIZO ETA ALATZ NAZABAL.

BEHEAN, EZKERRETIK ESKUINERA:

OIHAN OTAEGI, JUNE ARANBURU,
UNAI ITURAIN, UXUE LOPEZ,
ADUR MARTINEZ, KATTIN GARAY,
ANER IRASTORZA, MADDI BELOKI,
MAIDER HARREGUY ETA UXUE ESCANO.



TXINPART63

www.hautzaroikastola.eus



Mendiburu kalea, 2 · © 943 49 47 19



GARRITASUN INDUSTRIALERAKO
SISTEMA ETA PRODUKTUAK

GOIEKO S.L.
Bidaurre Ureder Industrialdea
2. Pabilioia - P4 partzela
Ventas de Irún Auzoa - 20305 IRUN
Tfnoa.: 943 634 536 • Fax: 943 634 537
goieko@oiacom.net



Industrias Tajo, S. Coop.



MONDRAGON
COMPONENTES



AENOR



Empresa
Registrada

ER-424/2/96



OIARTZUN

Zure Alcampo, egunero hobetuz



Easo Motor

FordFocus



Salmenta + Tailerra + Txapatan + eskaintza hoberenak

Lintzirin Poligonoa, 10 · 20180 OIARTZUN

© 943 26 04 26 / 943 26 03 91



GEZAK S.L.

KINLOREGTAKO KIDEAKETAK
GOSTOEN INTEGRAL PEBLUPORTATIBO



ELORSUNE KINLORETA • Euzkadi 24
T: 943 492 550 • M: 629 161 802
F: 943 490 591 • gezak@telefonos.net
20180 OIARTZUN (Gipuzkoa)